

Orri Txuria

Ania Latorre Armentia





IPUIN ETA KONTAKIZUN LABURREN LEHIAKETA

Saritutako kontakizuna
euskarazko modalitatea
14-18 urte

Argitaratzailea: Vitoria-Gasteizko Udala.

Gazteria Zerbitzua. 2019

Diseinua eta maketazioa: Iñaki Marquínez / io grafix

Ilustrazioak: Laura Arrue

Inprenta: Gráficas Irudi

ESTASIA

“Ez dut uste gure grinarik handiena bizitzaren zentzua topatzea denik”, esan zuen Joseph Campbell mitologoak, “benetan bilatzen duguna bizitza hori esperimentatzea da, bizirik gaudela sentitzea. Maila fisikoan ditugun esperientzia horiek geure barneko errealitatean oihartzuna izan dezaten. Funtsean, bizirik egotearen estasia sentitzea da nahi duguna.”

Bizirik egotearen estasi hori sentitzeko hamaika bide daude. Maitasuna, sexua, drogak, erlijioa, borrokak, bidaiak, muturreko kirolak, artea... Hamaika modu, bizirik sentitzeko.

Zer esan beraz literaturari buruz. Zergatik tematzen gara irakurtzen, idazten. Bada, horregatik: bizitza topatzen dugulako hitzen artean, eta hor gaudelako gu, bizitza horren erdigunean, sentitu dezakegu eta harrigarria da. Orduan egia zen! Bizirik gaude! Estasia!

Katixa Agirre

Orri Txuria

Ania Latorre Armentia

Ez dakit zer idatzi. Ordenagailu aurrean eseri naiz zeozer idazteko konbentzimendu osoz, baina ez dakit zer idatzi.

Aurreko asteetan, azterketa ugari izanik, denbora asko eman behar izan nuen ikasten eta, ikasi artean, istorioak idazteko hainbat ideia okurritu zitzaizkidan. Orain, ordea, idazteko denbora soberan daukadala, ez dakit zer idatzi.

Ordenagailuko pantailatik begirada altxatu, eta nire logelako leihotik kale iluna ikusten dut. Hainbat hodei gris erraldoik estalia dago zerua. Euria dario; euriak milaka tanta txikitan bustitzen ditu nire etxe ondoko espaloiak, eta baita haietatik oinez doazen ibiltarien kolore askotako euritakoak ere. Arraioa, zergatik ez nituen ideiak okurritu bezain laster apuntatu?

Haizea dabil, iparraldeko haizea. Kanean egingo

duen hotza imaginatze hutsak hotzikara bat eragiten dit gorputzean. Baina iparraldeko haize izoztuak ez du niregana iristeko modu, ezta aukerarik ere; nire etxeke hormek kaleko hozkailutik babesten naute. Seguru sentitzen naiz, arriskutik kanpo bezala, haizeak eta euriak nire logelako leihoa zipriztindu egiten duten bitartean. Asko gustatzen zait, egoera hauetan, kaleari begira babestuta nagoela sentitzea, goxo-goxo lehioaren beste aldean.

Baina hori ez da kontua. Ordenagailura itzuli dut begirada eta han jarraitzen du, nire zain, lehenago ireki dudan orri txuriak. Oraindik ez dut ezer idatzi, oraindik ez dakit zer idatzi, eta kurtsorea gelditu ezinik dabil; tik-tak, tik-tak, mahai gainean dudan erlojuan segunduak igarotzen diren bezalaxe.

Bat-batean, nire tripa zorriek logelako isiltasuna akatu dute. Goseak kontzentrazioa zaildu egiten

dutela diote; hori izango da arazoa, beraz.

Aulkitik altxatu naiz, ordenagailua hasierako orri huts eta txurian utziz, sukaldera joateko. Hozkailuan ez dago ezer, armairuan ez dago ezer. “Ai ama...” Orri txuria bezain hutsik dagoen zerealen kutxa baten atzean aurkitu ditut, eskerrak, atzo aitak eginiko gailetak, eta tripa zorrien kontzertua amaitutzat emateko aukera izan dut.

Beraz, nire logelara itzuli eta ordenagailu aurrean eseri naiz berriro ere. Pantailako orri txuria bezain txuria da nire aurrean dudan mahaia. Eskuineko aldean piztuta ez dagoen lanpara beltz eta txiki bat dago, eta haren alboan, korreoz iritsi zitzaidan propagandako 2019ko egutegi bat. Mahaiaren beste ertzean, lurrera erortzeko gogoak balitu bezala, atzo hasi nuen liburua dago, segunduak dantzarazten dituen plastikozko erlojuaren azpian.



Hori kolorekoa du azala, hori ahul eta zaharkitu batekoa, eta ihintz tantak dituen larrosa apal bat ikus dezaket eskuineko alboan, “8 de enero” dioen egutegi-orri baten ondoan. Liburuaren titulua zuriz dago idatzita, azaleko hori ahularen gainean kontraste nabaria egiten duelarik; “Paula”. Isabel Allende idazle txiletarraren autobiografia da, hilzorian zegoen bere alaba Paulari zuzendutakoa, berreskuratuko zelako esperoan.

Liburua hasi bezain laster hunkitu ninduten Isabelen hitzek; oso idazle ausarta iruditzen zait. Horrelako une zail batean sentimendu guztiei eutsi eta hitzetan adieraztea benetan mirezgarria delakoan nago.

Eta ni hemen, ordenagailu aurrean zer idatzi jakin gabe, hitzek eskuetatik ihes egingo balidate bezala. Ez da posible.

Orduan konturatu naiz; ordenagailuko pantailaren eskuineko iskinean gaur urtarrilaren berderatzia dela ikustean. Banekien, baina orain arte ez naiz kontziente izan. “Paula” liburua 1992ko urtarrilaren 8an hasitako istorioa da, eta haren lehendabiziko orrialdeetan Isabelek idatzi zuenez, eleberri guztiak urtarrilaren 8an hasteko joera du idazleak, superstizio eta diziplina kontu batengatik. Eta ni, atzo, urtarrilak 8, konturatu ere egin gabe hasi nintzen “Paula” irakurtzen.

Kasualitatea? Ez dakit, baina nire amonak esango lukeen bezala, “mailu izateko jaio bazara, iltzeak zerutik eroriko zaizkizu”. Agian, idazle izateko benetan balio dudala esan nahi du “Paula” urtarrilaren 8an hasi izanak. Agian, idazle bikain bat dago nire barnean ezkutatuta, esaldi moduan aurkezteko hitz edo ideia egokiaren zain, momentu aproposaren zain.

Hala ere, ordenagailuko pantailako dokumentuak hutsik dirau, kurtsorea tik-tak dantzan dabilen bitartean.

Etxeko txirrinak izutu egin nau orduan, baina ezin izan dut txirrina jo duenaren aurpegia ikusi. Atea ireki dudanean, ezezaguna korrika hasi da kalean barrena eta ni, birritan pentsatu gabe, haren atzetik abiatu naiz, giltzak hartu eta atea kolpe batez itxiz. “Nor zara? Zergatik dei egin didazu?”, oihu egin diot, erantzunik jaso gabe.

Kale amaieran ezkererantz jo du, kolore desberdinetako milaka euritakoren artean galduz, euri zaparradaren azpian desagertuz. Blai eginda nago, hotzik, dardarka. Zer dut buruan? Nire logelan, bero-bero leihoaren beste aldean, primeran nengoen. Zergatik hasi naiz ezezagun lelo honen atzetik korrika?

Jendearen artean galdu baino lehen, dena den, txirrina jo duen pertsonari zerbait erori zaio poltxikotik. Beno, ez dakit nahigabeko ala berariazko ekintza izan den, baina tolestutako paper bat dago lurrean.

Esku bustien artean hartu eta margolan bat dela ikusi dut, margolan baten argazki bat. Velázquezen obrarik entzutetsuena dut aurrean; *Las Meninas*. Zer esan nahi du honek? Edo, hobe esanda, honek al du esanahirik?

Exera iritsi, arropa guztiak kendu eta dutxa bero bat hartu dut. Asteak behar izango ditut hezurretaraino sartu zaidan hotza nire barrenetik askatzeko, baina oraintxe bertan ez zait axola. Gertatutakoari buruz ari naiz buruari etengabe bueltaka; ez dut kontu honi buruz ezer ulertzen. Zer da hau? Ziri sartze bat? Agian, norbaitek nire arazoaz jakin eta

idazteko laguntza bat bidali dit. Posiblea da? Inspirazioa zerutik ez datorrela diote, baina, nork daki? Agian nirea atez ate dabil.

Las Meninas obraren argazkia dut berriz esku artean, eta hari begira nago. Argazkiaren tolesdurek margolaneko hainbat txoko desagerrazari dituzte, eta urak kolorea kendu dio irudiari. Baina primeran ezagutzen dut koadroa. Foucaltek hari buruz eginiko interpretazioa irakurri behar izan dugu klasean, eta haren hitz korapilatsu eta hiztegi landuaren artean galdu arren, badakit *Las Meninas*-i buruz zerbait.

Errepresentazio hutsa da margolana; errepresentazio baten errepresentazioa. Argi dago Velázquez margolaria koadro batean ari dela lanean, baina, zeinetan? *Las Meninas* obran? Ala esku artean dudan margolanaren atzeko ispiluan ikus ditzakedan

errege-erreginen erretratuan? Ez dakit, ezin dut jakin, baina gauza da errepresentazio baten errepresentazio bat dudala begien aurrean. Hain gauza sinplea eta, halaber, hain konplexua; Velázquezek eginikoa ez zuen ordura arte beste inork ere egin.

Agian, gauzei buelta ematean dago gakoa, eguneroko gertakariei beste begiratu bat eskaintzean.

Ordenagailuko pantailan ezarri dut, berriz ere, begirada. Denak berdin jarraitzen du; orri txuriak ez du kontatzeko hitzik, eta kurtsoreak dantzan dihardu tik-tak musikaren erritmoan, mahai gaineko erlojuan segunduak igarotzen diren bezalaxe.

Bi ordu pasa dira jada ordenagailuan dokumentu hau ireki dudanetik, eta ez dakit oso ondo nola edota zergatik gertatu den, baina orain badakit zer idatzi. Nire atzamarrak mugimenduan hasi dira ordenagailuko teklekin jolasean, orri txuriaren bakardadea-

rekin apurtzen, kontakizun bat hitzez hornitzen.

Ezin dut kontrolatu, ezin dut egoera gelditu. Gero eta azkarrago goaz; gero eta azkarrago goaz ni eta neure burua. Bizkor, arrapaladan, lasterke-ta baten erdian egongo bagina bezala. Laino ar-tean ezkutatuta urteak zeramatzan zeozer ateratzen ari naizela dirudi, neure barne pentsamendu eta emozioak esaldi bihurtzen arituko banintz bezala, hodei ilunak euri tanta eran askatzen diren antzera.

Kontakizunaren klimaxera iristeko zorian nen-goenean, zoritxarrez, esnatu egin naiz; teklatuaren gainean lokartuta gelditu naizela dirudi, teklek nire aurpegian utzi dituzten markek froga dezaketenez.

Non dago *Las Meninas* margolanaren argazkia?

Eta arropa bustia?

Loak noiz hartu nau?





www.vitoria-gasteiz.org/gaztehitzak